

**Denboraren makina**  
Blanka I.a  
erreginaren DNA

▣ *Ezpalak*  
▣ *Argitalpenak*

▣ *Denbora-pasak*  
▣ *Makina bat kontu*

Ihesi  
Lazkaomendi,  
Goierriko balkoia

ARGIA

erdiko kaira

kultura eta aisia

## Izana duenak badu izena: Wu Ming

“Izenik gabea” esan nahi du mandarin hizkuntzan, baina “bost izen” ere. Txinako Herri Errepublikan disidenteek erabiltzen dute, baina Bolognako (Italia) idazle talde baten izena ere bada: Wu Ming, literatura gainditzen duen proiektu interesgarria.



# «Gure liburuak guztion gustukoak balira kaka liriateke, ez literatura»

ION OLANO CARLOS

“Q” hizkia eraldatu egin da liburu baten izenburua denez geroztik. Arrakasta itzela izan zuen eleberriak, eta mundu osoan ezagun egin zuen haren egile kolektiboa: Luther Blissett izena erabiliz kultur merkatua astindu egin zuten Bolognako bost idazlek 1990eko hamarkadan, baita izen bera erabili zuten ehunka sortzaileek ere. Proiektu hura amaitu eta berri bat hasi zuten bost literatoek: Wu Ming. Eleberriak, prentsarako artikulua, film baterako gidoia... Denetarik idatzi dute. Azken emaitza *Manituana* eleberria da.

Diotenez, zuen ahaide Luther Blissett 1994an jaio zen zapatistekin, eta Seattle hirian hil 1999an. Zuzena al da esatea bost urteko bizitza izan zuela? Ez al da, bada, oraindik bizi?

Jakina. Luther Blissett izena oraindik erabiltzen da mundu osoan. 1999an amaitu zena *Luther Blissett Project* izan zen, hots, “talde eragilea”. Talde hura sare sozialaz arduratzen zen, Luther Blissett izena erabiltzen zuen komunitate osoaren baitan. Nolabait esateko, mugimendu blissettiarraren Sinn Fein izan zen.

Izen bat, hizki bat: *Q*, mundu mailako fenomeno. Ekaitzaren ostean, nolako ajea?

Ekaitzaren ostean, osterator ekaitza. Borroka, mugimendu, protesta inspiratzaile da oraindik orain *Q* eleberria. Duela gutxi, Erroman, Benedikto XVI aita santuak ezin izan zion ikasturteari hasiera eman Italiako unibertsitate garrantzitsuenean, ikasleen protestak zirela-eta. Piketeen artean, kartel batean irakur zitekeen: “OMNIA SUNT COMMUNIA”. [*Q* nobelako anabaptistek erabiltzen dute latinezko esaldi hori].

Nolanahi ere, 1999ko abenduaren amaieran, *Seppuku* izeneko erritual japoniarra eginez, ofizialki bukatu zen proiektua. Nolako itxuraldatzea izan zuen Blissett jaunak, goiz batez Wu Ming azalean esnatzeko?

Itxuraldatzerik ez, Wu Ming jada bazen, artean hala izena ez bazuen ere. *Q* idatzi zuen pertso-

na taldea da Wu Ming. Beraz 1995etik existitzen zen. Izena aldatu du, besterik ez.

Nondik datoz Wu Ming izenaren ondoko zenbakiak? Zergatik jarri zenbakiak izenik ez duenari?

Guk badugu izen bat. Ez gara anonimoak, anonimoak ez diren bezala Negu Gorriak edo The Beatles edo The Spice Girls. Banda baten izena da Wu Ming, banda bat gara gu. Wu Ming izenak txineraz esanahi bikoitza duenez (“izenik gabea” eta “bost izen”), izenak berak agerian uzten du kontraesana, eta guk kontraesanekin egiten dugu lan, hain zuzen ere. Wu Ming taldeko partaide bakoitzak badu izen artistiko bat, bandaren izenari zenbaki bat gehituz sortua. Zenbakien ordena gure benetako abizenen ordena alfabetikoaren arabera da. Izen horiek erabiltzen ditugu ulertarazteko gure lan indibidualak ere proiektu kolektibo baten parte direla, elkarlanaren ondorio direla.

1870. urtean, Isidore Ducasse Lautréamontgo “kondeak” zera idatzi zuen: “Plagioa beharrezkoa da. Progesoak eskatzen du”. Egun, zer uste du Wu Mingek horri buruz?

Plagiotik harago joan beharra dagoela, jada-idatziaren eta jada-kontatuaren biruztartze simpletik harago. *Remix*-aren, *mash-up*-aren, *cut-up*-aren, *pastiche*-aren kultura zirrargarria da, baina museoetan gatibu gelditzeko arriskua du. Harago joateko ahalegina egin behar dugu. Pentsatzeke denarekin lan egitera itzuli, kontatzeke dagoenarekin.

Zuen liburuak erostean Einaudi eta Mondadori bezalako argitaletxe erraldoien izenak daramatzagu etxera. Non da ironia?

Nonahi, baina ez da gure arabera. Kapitalismoan bizi denaren bizitza, inteligentzia kritikoki darabilen edonoren bizitza, objektiboki da ironikoa. Guk ez dugu ironia gaintitza bilatzen. *Luther Blissett Project*-en oinarrietako bat zen industria kulturalaren baitatik lan egitea, pop kultura eta merkatuaren baitatik, eta guk tradizio horrekin jarraitu dugu. Planteamendu marxista eta gramsciarra da.



54 nobelan, liburuko pertsonaia bihurtu zenuten Cary Grant. “Estiloa” galdera guztien erantzuna zela uste zuen Charles Bukowskik, eta segur aski, baita Cary Grantek ere. Uste berekoak al zarete zuek?

Bukowskiren estiloa gustuko izango zuen ziu-rrerik Cary Grantek. Estiloak hainbat eta hainbat dira, eta denak ez dira galdera guztien erantzunak. Estilo eleganteena ere errepikakorra denean, puztu egiten da nazkagarri bihurtzeraino. Begira nola baliatu duten situazionistek Marx gaztearen estratagema estilistikoa, “genitiboaren aurkako”-tzat hartuz. Estiloa Marxengan errebolatari begira zegoen, esaldi simple bakoitzarekin egia ofiziala suntsitzea zuen helburu: “Alemaniako gauzen egoerari oldartzen zaion kritika ez da buruaren pasioa, baizik pasioaren burua”. Edota: “Luterok agintearekiko fedea hautsi zuen, hain zuzen, fedearen agintea berrezarri zuelako”. Situazionistek gehiegi erabili dute trikimailutxo hori, ia beti era mekanikoan, kontzeptu nahasiak erabiliz: “Ez dugu parte hartu nahi munduaren amaieraren espektakuluan, bai ordea espekta-

Wu Mingeko bi kide *Manituana* liburua aurkezten.

kuluaren munduaren amaieran”. Era horretan, estilo hura erantzun oker bilakatu zen.

Esan liteke estiloa ez dela aldatzen, baizik alda-korra dela beti. Atzera begira, nola ikusten dituzue aldaketak zuen estiloan?

Lanean jardun ahala ikasi dugu ezinbestez, eta bidean, estiloari eta hizkuntzari dagozkion kontu eta arazo berriak etorri zaizkigula. Erritmo arazoak, prosodiazkoak, doinuzkoak, figura erretorikoak sakontzeari buruzkoak. Lengoiak txunditzen eta intrigatzen gaitu. Steve Martin komiko estatubatuarrek zioen bezala: “*Language is the most important... ub... ehm...*”.

Wu Mingen lanekiko kritikak oso kontraesankor-rrak izan dira, European eta AEBetan. Zelako inpresioa gelditu zaizue, esperientziaren ostean?

Akaso hau esatea hutsalkeria da, baina garrantzitsuena da gure liburuek eztabaida piztea. Guztien gustukoak balira, liburuok kaka lirarte-ke, ez literatura.

Esaten eta egiten duzuen moduan, sorkuntza



lan oro da kolektiboa. Badirudi zuen lanek kolektibitate bikoitza bilatzen dutela, zuen pertsonaiengan kolektibotasuna begiratzan duzuela, norbanakotasuna bainoago.

Pertsona isolaturik existitu al daiteke, komunitatetik at? Noski, biologikoki existitzen jarrai lezake, koma egoera sakonean direnak ere existitzen dira biologikoki, eta kasu arraro zenbaitetan ermitauek bizitza espiritual bete dartoate, isolamenduan bizi arren. Baina horien kasuan ere, kolektibotasunaren bultzadaren aurrean egindako erreakzioa da isolamendua. Gizakiok genetikoki programaturik gaude gainontzeko gizakiekiko enpatia sentitzeko. Pertsona torturatu baten garrasiak entzuten ditugularik, torturatuak sentitzen gara geu ere. Burmuinean ditugun “ispilu-neurona” deiturikoen lana da hori. Duela urte gutxi aurkitu zituzten, eta iraultza handia eragiten ari dira emozioen eta erlazio pertsonalen azterketa zientifikoa.

*Manituana* zuen azken eleberriarekin, “tailerra” deiturikoa zabaldu duzue Wu Mingenean. Horri esker, irakurleek ideia konkretu samarra egin dezakete, zuen lan egiteko moduz. Irakurleek emandako iritzietatik, zerk harritu zaituzte?

Manituana.com helbideko foroan parte hartu duten irakurleek erakutsi dute oso irakurketa sakona egin diotela gure eleberrari. Batzuek aurkitu dituzte lur azpiko korranteak, atzeman dute pertsonaia nagusien genealogia mitologikoa, zedarritu dituzte testuaren “indar eremuak”, gaien arteko erakarpen magnetikoak, pertsonaien artekoak, testuinguruak. Zur eta lur gelditu gara. Zehazki, zenbait irakurlek azpimarratu dutelako liburuaren alde “gainaturala”, zeharkatzen duen “printzipio femeninoa”, Ama Jainkosaz hitz egin dute Molly eta Esther bezalako pertsonaiez ari direlarik... Oso, oso intrigantea.

Oraindik ez da *Manituana* liburuaren itzulpenik

## Subertsioaren alkimistak? Ez gehiago

“2000-2002 urteen bitartean akats ugari egin genituen: uste genuen borrokarako mitoa intenzionalki sor genezakeela, eta ideia horrek *agit-prop*-eko esaldietara mugatu zuen gure diskurtsoa. Mitoaren sortze prozesuan (mitopoiesian) “teknifikazioa” gure esku zegoela uste genuen, izan ere, gure inguruan bazen komunitate bat, mitoa berraragitu behar zuena, harrizko bilakatu aurretik. Baina mugimendu hark kontrakoa egin zuen: gure esaldiak hartu eta hutsal bihurtzeraino errepikatu ditu, fosilizatzeraino, *langue du bois* (egurrezko mihi) berri bat eginez. Denborarekin konturatu gara inozkeriaz jokatu genuela, eta bazterrean utzi dugu komunikazio subertsiboaren alkimista rola”.

argitaratu. Noizko “inperioetako hizkuntzetako” (ingeleza, frantsesa, gaztelania) itzulpenak?

Frantsesezko itzulpena 2008ko amaieran aterako da. Gaztelaniazkoa, agian, 2009 hasieran, eta ingelesezkoa, dena ondo badoa, 2009an.

*Manituana*-n honako esaldia irakur dezakegu: “Ez zegoen lekurik iraganarentzat, Amerikan”. Esaldiak zentzu handiagoa hartzen du aditza orainaldian jarriz gero. Azken eleberriarekin hasi berri duzuen trilogian Amerikako Iraultzaz ari zarete. Zerbaitek esan zizuen “orain Amerika”?

Bai, noski. AEBetako armada Bagdad bonbardatzen hasi zen gauean bertan (Bushen eta *neo-con* belatzen “Shock & Awe” operazioarekin batera) hasi ginen proiektatzen *Manituana* eta trilogia osatuko duten beste bi nobelak. Gerra hasi aurreko asteetan, NBEko Segurtasun Kontseiluan tirabirak izan ziren: alde batetik Irak eraso nahi zuten AEBak; bestetik, eraso horren kontrako herrialdeak, Frantzia buru. “Europako frontea” hautsi egin zuten Aznarrek, Blairrek eta Berlusconi irrigarriak. Gerraren kontrako manifestazio jendetsuak egiten ari ziren bitartean, analista batzuek esan zuten: “Atlantikoa zabaltzen ari da”. Esan nahi zuten Europako populazioaren sentsibilitatea eta AEBetako elkarrengandik urruntzen ari zirela. Europak eta AEBek mesfidantzaz eta erresumenez begiratzan zioten elkarri. Orduan gu, beste hainbat bezala, Europaren eta AEBen arteko harremanari buruz pentsatzen hasi ginen: non ote zen harremanaren jatorria? Erantzuna begibistakoa zen: AEBak nazio gisa sortzeko momentuan. Hortaz, ikerketa abiatu genuen.

“Beldurra da merkataritzaren arima”, dio *Manituanako* pertsonaia batek. Horrenbestez arteak, merkantzia gisa, zer egin dezake beldurraren aurka?

Pertsonak elkarrengana hurbildu. Desarmaturik, posible bada. Eta hortzak garbiak dituztelarik. ■



MUSEO CHILLIDA LEKU  
Chillida-Leku Museoa  
Jauregi Auzoa 66  
20.120 HERNANI  
943 33 60 06  
www.museochillidaleku.com - prensa@museochillidaleku.com



**Ondarre baserria**  
20214 Segura (Gipuzkoa) Tel.: 943 801684  
e-posta: ondarre@hispavista.com www.acvmultimedia.com/ondarre